

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



**EZTABAIDA: ZILEGI DA DEMOKRAZIAN ALDERDI
POLITIKO BAT LEGEZ KANPO UZTEA? /7**

Goienka

EGUBAKOITZA • 2002ko martxoaren 1a • III. urtea • 55. zenbakia • DOAN BANATZEKO

Goienka2a

Yoga: gorputza, burua
eta barne mundua
osatzeko teknika

KIROLA

Mankomunitateak eta
Kirolgik hitzarmena
sinatuko dute /10

ANGEL GARAI

*"Enpresa farmazeutiko handiak
hainbat estatu edo gobernu
baino boteretsuagoak dira" /9*



MERKATARITZA ETXE HANDIETAN ERE AUTOAK SALTZEN HASIKO DIRA LASTER

Autoak, supermerkatuan

Europako Batasuna prestatzen dabilen araudi berriak jakin-min handia piztu du, baina baita nahasmena ere. Araudi horren helburua autoen merkatua guztiz liberalizatzea da, bai Batasuneko herrialde guztietan, baita euren artean ere. Horrek ekarri duen bat-bateko aldaketa da merkataritza etxe handiek autoak saldu ahal izango dituztela.

Oraingoz, merkataritza gunek handiek ezin izango dute zuzenean automobilik saldu. Hala, banatzailearen eta bezeroaren

■ *Helburu nagusia da autoen merkatua guztiz liberalizatzea*

■ *Dagoeneko Eroskik zabaldu du bulego bat Bilbondon*

arteko bitartekariak izango dira. Europako Batasunaren iritziz, banatzaileek "esklusiban" saltzen dituzte autoak, eta horrek lehia askea hausten du. /2-3

OÑATI

Udal aurrekontuak onartu dituzte

Eguenean onartu ziren Oñatiko Udal aurrekontuak. 14,5 milioi euro pasako aurrekontua izango du Oñatiko Udalak (2.400 milioi peza). Santa Marinako kultura etxea berritzeko, 800 mila euro bideratuko dira (134 milioi peza).

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Truke Programaren berri eman dute

Mundukide Fundazioak Komunitate garapenerako esperientziaren Truke Programa aurkeztu du. Hirugarren urtea da Truke Programa antolatzen dutena. Brasildik, Kolonbiatik, Zimbabwetik... 13 lagun etorri dira aurtan. /4



AINZANE IRIZAR

Nekazaritza ekologikoaz jabetu

Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Gipuzkoako Elkarteak, Biolurrek, baserri ekologikoetara bisitaldiak antolatu ditu aurtan. Nekazaritza mota hori zelan lantzen duten gertutik jakitea da helburua. Debagoienean, Antzuolako Lapatza baserrian lantzen dute nekazaritza ekologikoa eta oraingo astean jaso dute lehenengo bisita. Bilboko Gabriel Aresti Euskaltegiko hamaika lagun hurre-ratu ziren eguaztenean Antzuolaraino, eta Tomas Larrañagaren azalpenak arretaz entzun zituzten.

HIPOTEKA MAILEGUA

Aurreneko 6 hilabeteetako interesa

%3,50

**Gainerako urteetan
Euribor + %0,50**

Irekiera-komisioa: %0,25

Bankoa Bergara. Ibarra 3 - 20570 Bergara - Tel. 943 76 38 93 - 902 444 222

bankoa
CRÉDIT AGRICOLE

Autoa erostera, s

Merkataritza gune handiek autoak salduko dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Europako Batasuna presatzen dabilen araudi berriak jakin-min handia piztu du, baina baita nahasmena ere. Araudi horren helburua, autoen merkatua guztiz liberalizatzea da, bai Batasuneko herrialde guztietan, baita euren artean ere. Horrek ekarri duen bat-bateko aldaketa, merkataritza gune handiek autoak saldu ahal izango dituztela da, hainbat hedabidek egunotan jakinarazi legez. Baina, zelan?

MERKATARITZA GUNEAK, BITARTEKARI
Oraingoz, merkataritza gune handiek ezin izango dute zuzenean

autorik saldu; banatzailearen eta bezeroaren arteko bitartekariak izango dira. Gurean, Eroski merkataritza guneak egingo du bere eskaintza hori. Carrefour taldea, Gasteizko Gorbeia duena, oraingoz, aukera "ikertzen" dabil.

Europako Batasunaren iritziz, banatzaileek "esklusiban" saltzen dute, eta horrek konpetentzia askea hausten du. Araudiak, europar batek edozein herrialdetan autoa erosi ahal izatea lortu nahi du; hori, gaur egun, ez da betetzen, prezioak askoz altuagoak direlako herri batzuetan besteetan baino. Horretarako, hainbat neurri proposatu dira: salmenta liberalizatzea, saltzaile batek marka asko eskaintzea...



Basauriko Bilbondo zentroan zabalduko du Eroskik bere lehen auto salmenta gunea.

EROSKI TALDEA

Besaulkiak & Sofak

Stressless®

EROSOTASUNAZ GOZA EZAZU

PROBA ITZAZU
IKUS EZAZU ZER ONDO EMATEN DIZUTEN

Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema eksklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

Zatuz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
en los brazos de Morfeo
Centro de Descanso

Adriano VI, 17 • GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

EKORNES®




CITROËN / Chapime
PAULINO RIVAS
KOMERTZIALA

Merkataritza guneetan autoa erosteari ez diot abantailarik ikusten. Bitartekariak besterik ez lirakeke izango; hortaz, erosi ondorengo zerbitzua, aseguru... eurek eskaini behar dituzte? Eta erreklamazioak eurei egin behar dizkio bezeroak? Ez dakit...

Informazio argia ere ez dute eman. Nire ustez, hainbat zurrumurru hedatu dituzte, zundabalo antzera. Ez dut uste merkataritza guneek min handirik egingo digutenik, baldin eta ez badira gehiago inplikatzan.

“Ez digute min egingo, ez badira gehiago inplikatzan”



FORD / Mugarri
RAFA ETXABE
KOMERTZIALA

Autoen munduan, etekin marjina oso estua da honezkeroko. Hedatu diren albisteekin, zarata handia ateratu dute, eta nik uste dut ez dela serioa halako zalaparta ateratzea jendeari informazio garbia eman barik, hau da, azaldu barik marjinak txikiak direla benetako deskontuak egiteko. Hainbatek erakusten dituzten prezioak "puztuta" datoz, eta jendeak izugarritzko aurrezpena egin duela sinisten du, baina ez da horrela.

“Marjinak txikiak dira deskontuak egiteko”

Supermerkatura?

JOSU SANZ / EROSKI TALDEKO KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

“Auto salmentarekin, Europako arau berriari aurrea hartu diogu”

Eroski merkataritza taldea bere dendetan autoak saltzen hasiko da. Horren gaineko argibideak Josu Sanzek eman dizkigu.



Noiz eta non hasiko da Eroski autoak saltzen?

Laster, martxoan izango da. Bilbondo zentroan, Basaurin, zabalduko du Eroskik bere auto salmenta gunea. Hori Eroskiren lehenengo multi-auto gunea izango da.

Zeintzuk dira horren helburuak?

Neurri horrekin, Europako arau berriari

egingo du, eta liberalizazioa etorriko da, seguruenik, eta baita beste neurri batzuk ere: merkatuaren zabalkundea, salmenta modu berriak, salmentaren eta salmenta ondorengokoen loturaren etena... Eroskik liberalizazio horri aurrea hartu dio.

Zein marka izango dira aukeran?

aurrea hartzen dio. 1995etik, autoaren sektoreak araudi zorrotza izan du. Urriaren letik, Europar Batasunak araudi hori guztiz aldatzearen aldeko apustua

Eroski Taldearen Multi-Auto zerbitzuak, banatzaileek ez bezala, merkaturako marka nagusiak eskainiko ditu. Horrela, dendatik mugitu barik, bezeroak auto guztiak konparatu eta

berarendako egokiena aukeratu ahal izango du. Horrela, auto berria modu errazago eta erosoagoan aukeratu ahal izango du Eroskiko bezeroak.

Autoarekin zerikusia duen beste produktu eta zerbitzurik eskainiko dituzue?


Bai, hala da. Europar araudiak marka askotariko salmenta guneak bultzatuko ditu: finantzaketa, autoaren tasazioa, aseguruak, mantentzea... Horiek guztiak bezeroaren “neurria” egindako eskaintza osatzen dute.

ZEINEK ESKAINIKO DIT PREZIORIK ONENA? Deskontu handiak eskainiko ei dituzte...

Hainbat hedabidek kaleratu zuten, merkataritza gune handiek sei mila euro inguruko deskontuak eskainiko zituztela hainbat autotan, banatzaileen prezioekin alderatuz gero. AEGAk, Gipuzkoako Automozio Enpresarien Elkarteak, honela dio: “Argi eta garbi utzi behar da ez dela horrelako prezio alderik egongo. Alde horiek baditugu, esandako deskontuak ez direlako autoen benetako prezioen gainean ezarri, egileak gomendatutako tarifa ofizialen gainean baizik, eta banatzaileek honezkeroko egiten dituzte beharpen horiek. Prezio onena beti banatzaileak eskainiko du”, diote. Euren iritziz, “merkataritza guneen helburua, jendea hara erakarzea da, eta autoak horretarako bide bat gehiago besterik ez dira”.

EUROPAKO BATASUNAREN ARAUDIA Zein da araudi horren helburua eta zer dio?

Europako Batasunak egindako ikerketen arabera, prezio alde handiak daude Batasuneko herrialdeen artean: adibidez, Alemanian, Volkswagen markako auto batek, Europako beste edozein herritan baino %20 gehiago balio du. Hori kompetentzia askearen aurkakotzat jotzen dute, europar batek ezingo duelako autoa edonon erosi. Urriaren kaleratuko den araudiaren zirriborroak banatzailearen irudia indartu gura du, eta baita herrien arteko kompetentzia ere; hau da, kompetentzia mota guztiak indartuko ditu. Bestalde, oraingoz, edozeinek auto bat sal dezakeela aurreikusi dute, baina bitartekari moduan. Ikusteke dago banatzaileek marka asko eskaini ahal izango dituzten.



NISSAN, VOLVO... / Aldibi
JABIER ZUMELAGA
KOMERTZIALA

Arau hori ez da urriaren 1era arte indarrean sartuko, baina bai, auto saltzaileok bagenuen horren berri, nahiz eta ezer zehatzik ez dakigun oraindik.

Eraginik izango duen? Neure ustez, hasierako hilabeteetan ez larregi. Kontuan hartu behar da merkataritza gune handiek bitartekariarena egingo dutela; kontratuak ez dituzte zuzenean egilearekin egingo, banatzaileekin baizik; hortaz, salmenta agentearena egingo dute, banatzaileei bezero berriak ekarriaz.



SEAT, AUDI... / Udalaiz
JON GALDOS
KOMERTZIALA

Hainbat komunikabidek esan dute, merkataritza gune handiek izugarritzko deskontuak egingo dituztela -sei mila euro ingurukoak ere iragarri dituzte-, eta hori ez da horrela. Kontuan hartu behar da merkataritza guneek banatzaileei erosi beharko dizkietela autoak, hortaz, euren salneurriak ezin izango dira izan askoz baxuagoak. Jendeak, begiratu, begiratu du han ere, baina asko erosiko duen... hori ez daukat hain garbi. Gauzak asko aldatu beharko dira horretarako.



PEUGEOT / Ekomobil
JOSE EUGENIO SAEZ
KOMERTZIALA

Merkataritza gune handiek deskontu handiak egingo dituztela esan dute, baina kontuan hartu behar da deskontu horiek auto egileak gomendatutako salneurriaren gainean egingo direla, eta hori banatzaileek ere egiten dugu aspalditik. Nire ustez, banatzaileok, merkataritza gune handiekin lehiatu ahal izango dugu, ez delako prezio alde handirik izango gure eta haien artean. El Corte Inglesek, adibidez, guk baino garestiago saltzen du. Hedatu den informazioa ez da argia izan.



RENAULT / Meca
ANA BUJANDA
KOMERTZIALA

Europako Batasuneko arau hori finkatzeke dago, baina oso modu nahasian aurkeztu dute. Egia da merkataritza guneak salmenta leku bat gehiago izango direla, baina alde handia dago autoa zeuk ikusi eta probatu ondoren erosi eta katalogo bidez erostean artean. Autoa ez da edozein etxetresna, eta erosi ondoren, garantia izango duela jakin nahi du bezeroak, eta konfiantza ematen dion lekuetara joaten da. Nire ustez, konfiantza hori, oraingoz, banatzaileok ematen dugu.



OPEL / Ola
KARLOS ETXANIZ
KOMERTZIALA

Merkataritza gune handiek autoak saltzea, legearen zati txiki bat besterik ez da. Horri dagokionez, hona hemen gure iritzia: egia da merkataritza gune handiek gero eta gauza gehiago saltzen dituztela, baina autoak mantentimendu handia eskatzen du, eta gero eta espezializatuagoa; eta, nire ustez, bezeroarendako onena da, autoa erosi duen salmenta leku edo tailerrera eramatea, behar denean. Azkenean, banatzaile bakoitzak bezero batzuk fidelizatzen ditu.

“Merkataritza gune handiak bitartekariak izango dira”

“Jendeak, begiratu du, baina ez dakit erosiko duen”

“Banatzaileok aspalditik egiten ditugu deskontuak”

“Bezeroari, konfiantza, banatzaileok ematen diogu”

“Autoa erosi den tailerrera eramatea da onena”

Mankomunitateak datorren astean onartuko ditu urteko aurrekontuak

Ezohiko gobernu batzarra egingo dute, eguaztenean, seguruen

ENEKO AZKARATE

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu batzardeak ezohiko batzarra egingo du datorren astean, eguaztenean edo egubakoitzean, aurtengo aurrekontuak onartzeko. Berez oraingo astean onartzekoak ziren, baina ez zen horrela izan.

Mankomunitateko Gobernu batzardeak eguaztenean egin zuen hileroko batzarra; oraingoa, Antzuolan. Aztertzeo gaien artean, aurtengo aurrekontuak. Baina urtarrilean egin zuten batzarrean gertatu zen moduan, oraingoa ere ez zituzten onartu. Edozelan ere, EAJ-EAk eta Batasunak gerturatu egin zituzten euren ikuspuntuak. Horregatik, esan dezakegu datorren astean onartuko dituztela aurrekontuok, Mankomunitateko Gobernu batzardean dauden hiru alderdien aldeko botoekin. Bost milioi eta erdi euroko aurrekontua izango du aurtengo Mankomunitateak (920 milioi pezeta).

Eguaztenean Antzuolako Udaletxean egindako batzarrean beste gai batzuk ere aztertu zituzten. Batetik, Debagoieneko Turismo



Aurrekontuak ez, baina Turismo Azoka Oñatin egitea onartu du Mankomunitateak.

Azoka aurtengo Oñatiko pilotalekuan egitea onartu zuten. Maiatzaren 18an eta 19an izango da hori. 6.010 euroko aurrekontua izango du Turismo Azokak (ia milioi bat

pezeta). Bestalde, zabor-bilketa zerbitzu berria dela eta, lehen erabiltzen ziren kamioiak zaharkituta geratu dira, eta txatarrerako saltzeko enkantea ere onartu zuten.

BAILARAN LABUR

Iranen hildako lauretatik bakar baten gorpua Euskal Herriratu ahal izan dute

Astelehenean itzuli ziren Euskal Herrira Iranen hildakoen senitartekoak eta lankideak. Aretxabaletan bizi zen Juan Carlos Gokoetxearen gorpua bakarrik berreskuratu eta Euskal Herriratu ahal izan dute. Beste hiru lagunenak, ez. Fagor Arrasateko Errektore Kontseiluko presidente Josean Alustizak esan du datorren astean lau hildakoen aldeko hileta elizkizunak egiteko asmoa dutela.

AEKren laguntzaileen zozketako saria Debagoienara etorri da aurtengo

AEKren laguntzaileen zozketan, Fagor Ederlanen lan egiten duen Joseba Zumarraga elorriarrari egokitu zaio saria: 12.000 euro, hau da, urtebeterako 1.000 euroko soldata. Gipuzkoan antolatuta da zozketa, eta Debagoienan 4.000 AEKren laguntzaile egon dira. AEK-ek egutegiak oparitzen ditu laguntzaileen artean eta horren truke laguntza eskatu. Laguntzaileen zozketan izan da saritua Joseba.

Ibarreko presoak omenduko ditu Batasunak Arrasaten

Txomin Iturbe hil zela 15 urte bete direla eta

E.A.

Gaur, martxoak 1, beteko dira 15 urte Txomin Iturbe hil zela. Hori dela eta, omenaldia egingo dio Batasunak bihar Arrasaten. Lehenengo, manifestazioa izango da 18:30etik aurrera, Seber Altubetik aterata. Ondoren, eki-

taldi politikoa Amaia Udala Antzokian, 19:30ean hasita. Mondragoeko alkate Xabier Zubizarretak eta Batasuneko bozeramaile Arnaldo Otegiak hitzaldiak egingo dituzte. Mondragoen egingo diren ekitaldiekin, Debagoieneko 50 preso eta gudariak omendu nahi ditu Batasunak.

Komunitate garapenerako esperientzien Truke Programa aurkeztu du Mundukidek

E.A.

Mundukide Fundazioak Komunitate garapenerako esperientzien Truke Programa aurkeztu zuen martitzenean Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

Hirugarren urtea da Truke Programa antolatzen dutena. Programa horren helburu nagusia da Hego Amerikako eta Afrikako garapen esperientzietan protagonista direnak gurera gonbidatzea, han egiten dutenaren berri zuzena izan dezagun. Era berean, haiek ere hemengo kooperatiben

mugimenduaren berri zuzena izan dezaten; eta, horrez gain, Hirugarren Munduko errealitate komunitarioak ezagutaraztea eta hemengo erakunde edo taldeekin lankidetzarako harremanei hasiera ematea.

Aurtengo, hamahiru lagun gonbidatu dituzte gurera eta hilabete emango dute Debagoienan. Eskoriatzako HUHEZI Fakultatean egongo dira, baina Debagoieneko beste herri batzuk ere bisitatuko dituzte. Besteak beste, Brasildik, Kolonbiatik, Mexikotik, Txiletik, Gineatik eta Zimbabwetik etorri dira aurtengo.



Hezkuntza sailburua, gurean

Hezkuntza sailburu Mari Angeles Iztueta Debagoienan bisitari izan genuen eguaztenean. Mondragon Unibertsitatea gertutik ezagutzeko aukera izan zuen sailburuak. Olandixoko MCCko egoitza nagusia, MUko fakultateak eta Garaia berrikuntza gunea izango deneko orubeak bisitatu zituen, besteak beste. MCCko presidente Jesus Cattanarekin eta MUko errektore Iñazio Oliverirekin eta MUko errektoreorde Guillermo Irazokirekin elkarriketatzeko astia ere izan zuen.

PABILOIA SALGAI BERGARAN

Amillaga 21
(gasolindegia parean)

230 m²
(1go. solairua)

JASOGAILUAREKIN.

Oso argitsua

75.200 €

607 762 741

ARRASATE

Arrasateko Udalean bizi duten egoera salatu dute sozialistek

Zinegotzi sozialisten taldeak kanpaina berezi bat hasi du. Hala, joan den asteburuan, idatzi bat bidali zuten herritarren etxebizitzetara. Talde sozialistako bozemaile Paco García-ren esanetan, Arrasateko Udalean bizi duten egoera salatzea da ekimen horren helburua.

Bazenekien? izenburupean, besteak beste, idatzian EA eta EB alderdien kontra egiten dute, Bata-sunarekin batera gobernatzen ari direlako. Ez da bidali duten lehenengo idatzia eta ez da azkena izango ere. Hala iragarri dute.

/UBANE MADERA



JABIER ARRIOLABENGOA

ARAMAIO

Irudiotan ikusten duzuen lekuan geratu zen butanoa banatzen duen kamioia, aldapaz behera zenbait metro gidari barik egin eta gero

Ibargoin 15. zerbakiaren inguruan butanoa banatzen ari zela, butano-kamioia martxan jarri zen eta aldapan beherako bidea hartu zuen joan den egunean. Lekukoek adierazi digutenez, zenbaitek kamioiaren atzetik jo zuten, zerbait egin guran, baina, jakina, ezin izan zuten ezer egin eta kamioiak beheranzko bidea segitu zuen. Bidean, aparkatuta zeuden bi auto kolpatu zituen, eta bat, berarekin behera eraman. Era berean, farola bat ere kolpatu zuen eta errotik atera. Zorionez, Ibargoiko 12. zerbakiako hormak bidea oztopatu zion eta hantxe geratu zen, ortura erortzeaz. Ikusgarria izen ei zen istripua, baina butano banatzailearen esanetan, bonbonak oso seguruak dira, ondo babestuta daude, eta, hortaz, aramaioarrek ez zuten bestelako arriskurik izan. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

Errekalde pareko zebrabidea babesteko lanak egiten hasi dira

Oraingo astean hasi dira lanekin. Errekalde pareko zebrabidearen bi aldeetan babesgunea egiten ari dira. Jende askok erabiltzen du zebrabide hori, eta egoera arriskutsuan zegoela-eta, zerbait egin beharra zegoela ikusi zuten Diputazioak.

Aspaldi ari zen Udala errepidearen egoera arriskutsua konpon dezala eskatzen Diputazioari. Orain egiten diharduten babesgunea lehen urratsa besterik ez da. Orain, errepidearen egoera konpontzeko proiektu zabalago bat egiten dihardu Diputazioak. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

Uruburu, GOITBko seinale zabaltzailea kokatzeko leku aproposena

Teknikariekin egindako batzarrean, Uruburuko bizilagunen ordezkariak ez zuten arazorik ikusi seinale zabaltzailea hantxe kokatzeko. Atzo bertan, Uruburuko bizilagun guztiak batzekoak ziren gai hori eztabaidatzeko.

Telebista antenen oso antzekoa den seinale zabaltzailea bi metro inguru garai da. Herriko etxebizitzetara GOITB zabaltzeko aukera emango du horrek, eta teknikariak egiazatu dute osasunean ez duela inongo kalterik egingo. /OXEL EROSTARBE

OÑATI

Zenbat etxebizitza dagoen hutsik herrian aztertu nahi du Udalak

Lan hori egiteko administrari bat kontratatzea onartzekoa zen Oñatiko Udala atzo, eguena, osoko bilkuran. Udalaren helburua da, behin jakinda herrian zenbat etxebizitza dagoen hutsik, ugazabekin harremanetan jarri eta etxeak errentan jartzeko gomen-datzea.

Dagoeneko hasi dira horretarako lanean. Lehenik eta behin, inor errolatuta ez dagoen etxebizitzetako zerrenda osatu dute: 800 etxebizitzatik gorako zerrenda, hain zuzen ere.

Baina inor errolatuta ez egoteak ez du esan gura inor bizi ez denik. Horregatik, hurrengo pausoa izango da, argindar kontsumoari begiratuta, zerrenda horretako etxebizitzetako inor bizi den aztertzea.

Beste urrats bat ere emango dute; izan ere, gerta daiteke, argindarra erabili arren, etxebizitza baten inor ere ez bizi izatea. Esate baterako, badago jendea

baserria duena eta asteburuetan bakarrik joaten dena. Horregatik, auzo-alkateekin harremanetan jartzeko asmoa dute, behin betiko zerrenda osatu ahal izateko.

IKASTOLAK, 35 URTE

Txantxiku Ikastolak 35 urte beteko ditu aurten. Urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko asmoa dute, eta ikasle ohiei eta gurasoei deialdia egin gura die antolaketa lanetan laguntzaile izan daitezen. Horretarako, ekitaldiok antolatzen hasteko, batzarra egingo dute martxoaren 12an, 18:30ean, ikastolako aretoan. /AINTZANE IRIZAR

Zertzelada

Hasi dira lanean jakiteko zenbat etxebizitza dauden hutsik; hasierako zerrenda bat osatu dute, eta horren arabera, 800 bat daude hutsik.

BERGARA

Negozioetako publizitate euskarriak zelan jarri arautu du Udalak

Negozioetako fatxadetan lokalak jartzen diren errotulu, iragarki, plaka, toldo, markesina, eta metalezko itxituren instalazioa arautzeko ordenantza onartu zuen udalbatzak astelehenean.

Hiri lurretan izango du eragina araudiak; industria guneetan, aldiz, ez, eta asteleheneko osoko bilkuran onartu zutenetik indarrean dago. Publizitate

egiteko erabiltzen diren modu horiek oso nabarmenak dira, eta Udalak kale eta plazen itxura babestu nahi du.

Horrez gain, fatxadetan jartzen diren kartelei buruz ere aipamena egiten du ordenantzak. Dio kartelak fatxadetan jartzea debekatu dagoela, eta horretarako iragarki taulak erabili beharko direla. /M.B.



MONIKA BELASTEGI

Gune historikoan ezin izango da toldorik jarri arautegi berriarekin.

ARETXABAleta

Kurtzebarri eskolaren plazako egoitzarako proiektua, prest

Joan den martitzenean aurkeztu zuen Jose Mari Segoviak, Udal Hirigintza teknikariak, Kurtzebarri plazan duen eraikinerako proiektua. Orain, guraso elkartekoek eta Kurtzebarri eskolako arduradunek proiektua aztertu beharko dute, aldaketarik balego, huraxe jakinarazteko.

Eraikina zaharberri-tzeko lanek irailean hasi eta 18 hilabete iraungo dute. Guztia Eusko Jaur-laritzaren eskutik egingo da, baita finantzaketa ere. Lanok 240 milioi pezetako aurrekontua izango dute.

/AMAGIOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA

San Juan kalean hasi eta plazaraino dauden eraikinak botako dituzte

Hainbat eraikin eraitsiko dituzte Eskoriatzan datozen hilabeteetan. Lehenengo bota dute dagoeneko, San Juan kalean, eta poliki-poliki plazara bitartean dauden guztiak botako dituzte.

ZIRKULAZIOAN ALDAKETAK


Eraisketa lanak direla eta, herriko zirkulazioak hainbat aldaketa izan ditu. Eskoriatzara etortzen direnek kontuan hartu beharko dituzte aldaketa horiek guztiak. Hala ere, hiriko autobusek ohiko ordutegi eta lekuetan izango dute geltokia. /MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA

Baserriek egurrean landutako izena daramate sarrera nagusiaren ondoan

Gatzagako Baserri eta Toponimoen Markaketa proiektuaren barruan dago egitasmo hori. Helburua da herriko baserrien, mendien, ibaien, txokoen eta zuloen izenak berreskuratu eta jakitea. GUREL Gatzagako Gurasoen Elkartek jarri zuen abian proiektua iazko ikasturtean. Euskaltzaindiak baserrien izenak aztertu eta zuzendu ditu eta Lurkoi enpresak landu ditu izenok egurrean. Laster baten herriko beste txoko batzuek ere izango dute izena jarrita. /A.G.

Zabalik

ANDONI
URZELAI

Karismarik ez, baina inteligentea bai

Asterix-eko *Abrada-kouxis* bezala bizi gara euskaldunok azkenaldion: zerua gainera noiz etorriko beldur. Txingorra bezala datozkigu bertotik espainol nazionalisten harrikadak.

Karismaduna ez, beharbada, baina Aznar presidentea inteligentea denik ezin uka. Nazionalismo hitza gaiztotuz hasi du euskaldunon aurkako gurutzada. Euskaldun abertzaletasuna, noski, haiena ez baita hori. Haiena sentimendu naturala da.

Ez ditu, gainera, alproja halakoak bidaia-kide makalak aurkitu gurutzadari ekiteko, ez. *Mass-media* boteretsuenak bildu ditu anti-euskaldun banderapean, munduan egon litezkeen soldadu finenak.

Haien babes eta txalopean, Enrique Villarrek, Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak, inolako lotsa izpi barik kriminalizatzen ditu euskara eta ikastolak. Letamendia *Ortzi*, Unibertsitateko irakaslea, *lapidatu* egin dute ia-ia. Batasuna alderdia, batek daki zein arrazoi-pean, legez kanpo utziko dute seguruenik. Euskaldun izate nahi hutsa, izaera bera, delitu izango da aurki!

Goitik datozen harrikadak saihestu ezinean ari gara gu bitartean... Sarri egurtutako animaliak, denboraz, zigorra merezitakoa duela sinetsi ohi du. Halatsu gaude gu, hartu eta hartu, txintik esan barik, akusazio absurdoen defentsa erridikulan, egurtutako animalia bezain otzan eta konplexuz betea. Inteligentea haiz, bai, Aznar.

Gutunak

Errotak biraka dirau

Elkarrekin ginen atzo suaren ondoan, bizitzaz betetako epeltasun samurrean, eta gaur Irango zoritxarreko mendi horren elur tartean zara. Zer denbora gutxi! Zer bidaia luzea! Non geratu ote dira asmoak, ilusioak...? Non Oteiza, Atxabaleta, Ereño...? Non Mari Asun, Igor, Ane...?

Joan zaigu naparra, irribarre samurra, erantzun zorrotza, kastak agindutako burugogorra. Hitz neurtuak, galbahean ondo paseak, beti laguntzeko gertu, laguna!!!

Errotaria moteldu egin da, baina uraren gurgurioak erakusten digu bizitzak aurrera egin behar duela, laino artean ibili arren beti agertzen baita eguzkia. Gero arte, Juan Carlos.

ANTZUOLAKO LAGUNAK
Antzuola

Bailarako autopista = Angiozarko astopista

Autopistan obrak hasi zientetik Bergara Ainguruen ez da giro. Baña bizimodu e inondako aldatu bada, auzuetako jentien-dako aldatu da: Ikaragarritzko lur mobimentuek, kamioien bildurrez (gau eta egun), orkatillarañoako lokatza (hori ez danien, ikusi be ein ezindako hautse), asidenten bat izeteko bildurre... eta hori gutxi balitz, kamioien eta langillien hartzekuek.

Azpiegiturak dakarten aldaketa honek inun igartzekotan, Angiozarrera bidien igartzen die. Sasoi bateko Madril txiki, benetako Madrillen pare jarri nahi doskue oin be: Autopista, Abiadura Haundiko Tre-na... Horrek danok datozen artien, barriz (gero ez da hobeto izengo baña...), Angiozarrera aillegatzie inoiz baño zaillague daukou inguru horretara jueten garenok.

Hala be, eskerrak emon biherrien gare Bergarako Udala Angiozarren ein dittuen obrak diela eta: Frontoie ederki jarri dabe, kaliek dotore-dotore (asfaltaute, farola barri-barrixekin...) eta inportantiena, kotxiek aparkatzeko marrak be pintau dittue. Lastima, kotxiek ebalteko baño bide eskasauek eukitzie!!!

Kasi-kasi astue lotzeko txinga batzuk jarri balittue kotxiendako marren partez, hobe!. Izen be, balientie izen biher dau kris-

tauek Angiozartik edo Angiozarrera kotxien mobitzeko. Oñez etortzie barriz..., leporañoako katuska batzuekin akaso? Angiozartik behera sasoi bateko asto illarak ikusten hasiko ete ga ba?

Bergarako udaletxeko arkupietan be astuek lotzeko txingak jarri biherko lieke akaso. Ez, ez, udaletxekuek lotzeko ez, auzuetakuen astuek lotzeko esaten dot.

Bromak alde batera lagata, gertau dien azidentiek ikusitte, Udala, Diputaziñue edo baten batek autopista dala eta auzuetako bidiek "puxkat" zaintziekin arduratu biherko leuke. Haundixauren bat gertau aurretik.

Hau irakurritte, baten batek pentsauko eban honezkero, "ene gixajuoi, etxak astue lokatzen". Ba... bai gizona, bai; hasi Altosornosen eta Lamieteiraño, astuek, kotxiek, tratoriek eta danak belarrittarañoako lokatzetan gabitz.

Inguru honetan hain ezaguna dan esera honek esaten daben moduen, astuek be torpetu eitten die lokatzen. Ia ba, bidiek personendako moduen mantentzeko ahalegiñe eitten daben ein biher dabenak.

JON ANDER LOIDI
Aretxabaleta

Mizpirualde egoitza

Mizpirualdeko egoiliarren senideon Mustez, egoitzako lanak egiteko erabilitako diru publikoak ez dira izan egoiliarren onerako, eta onuradun bakarrak bertako bulegoetako langileak izan dira.

Egoitzan egindako lanak direla eta, kafe-tegia, liburutegia, lorategira bideko galeria bi eta leku ireki horretarako irteera zeuden beheko solairua txarrerako aldatu egin dute. Orain, kafetegi berria lehen solairuan dago. Ondorioz, erabiltzaileek igogailua erabili behar dute beheko solairura eta jantokira joateko, izan ere, jantokia beheko solairuan dago oraindik. Ez dago esan beharrik horrek eguneroko eragiten dizkien traba eta mugak.

Egongela berria askoz txikiagoa da, eta ez dago egoiliar askok erabiltzen dituen gurgil-aulkiak behar bezala mugitzeko lekurik. Egongela horrek atzeko aldera ematen du.

Lehen solairu horretako pasilloetako batean besaulkiak ipini dituzte, eta egoiliar batzuek arratsalde osoa ematen dute hormari begira. Lehen, beheko solairuan liburutegi zabalera zeukaten, eta lekua askoz egokiagoa zen.

Ez dago, leku irekietara joateko irteera zuzenik. Egoiliarrek bertara joatea gura badute, ibilbide ederra egin beharko dute, eta hori, laguntza beharrean traba izan daiteke. Lehen, beheko solairuan, zuzenean irteten ziren pasilloaren bitartez.

Lekualdatze horrek egoiliarren gozamenen eta bizi-kalitatean kaltea ekarri du, eta egoitzako zuzendaritzari eskatzen diogu, egoiliarrek beheko solairura itzul daitezela. Leku horretan bulegoak jarrita, gure ustez, hobekuntza teknikoie eman die-te lehentasuna, egoiliarren bizi-kalitatearen gainetik.

ELENA LAMARAIN ETA
ANDRES GABILONDO
Bergara

Premia gorrian

Nire kasua azalduko dizuet. Arrasateko familia bat gara (senar-emazteak eta hamasei urteko alaba bat). Urrira arte sukaldari lanean ibili nintzen, jatetxea itxi zen arte. Nire senarrak, berriz, errebarbadore lana egiten zuen, baina azarokan kalean gelditu zen. Nik ez nuen lan-kontraturik eta nire senarrak autonomo gisa lan egiten zuen, beraz, ez dugu bietako batek ere ordutik hona ezer jasotzen.

Azaro bukaeran, Arrasateko Udaletxeko Ongizate Sailera jo nuen. Paperak konpondu eta laguntza minimoa jaso ahal izateko tramiteak egiten hasi ginen. Zoritxarrez, urtarrilean, Ongizate Sailean zera esan zidaten: Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, ezin genuela laguntzarik jaso nire senarra autonomoetan alta emanda zegelako. Eibarrera joan ginen autonomoetan baja emateko, baina oraindik, otsailaren bukaeran, laguntza minimoa jasotzeko zain gaude.


Azaroa ezkerok ez dugu inolako soldatarik edo laguntzarik jaso. Azken sei hilabeteotan ez dugu alokairurik, ez urrik, ez elektrizitatearik ordaindu. Eta pisuko jabeak martxoaren 8an kalera bota nahi gaitu.

Arrasateko Udalarri eta dagokionari esan nahi diogu Arrasateko familia batek jatekorik ere ez daukala. Laguntza premia handian gaude lana aurkitu artean. Ahalik eta lasterren erantzun bat behar dugu!

VICENTA CASADO
Arrasate

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Ezker abertzaleko hainbat talde, indar politiko, giza mugimendu, eta abar legez kanpo uzteko ahaleginetan dihardute azkenaldian. Madrilgo gobernuak eta opo-

sizioko lehen indarrak—PPk eta PSO-
Ek—hainbat erabaki hartu nahi dituzte Batasuna isolatzeko, bakea lortzeko bidean-edo. Lehen ere egin dira horrelako ahaleginak. Baina zilegi da

demokrazian indar politiko bat legez kanpo uztea, batez ere kontuan hartzen badugu herritarren zati batek indar politiko hori babesten duela? Horixe, oraingo astean eztabaidagai.

Zilegi da demokrazian alderdi politiko bat legez kanpo uztea?

Ikusi, irakurri eta aztertu egin behar datorrena



NEKANE
SAN MIGUEL
Epailea

Azken bolada honetan, behin eta berriz, Batasuna eta ezker abertzalea deritzon mugimendu eta elkarten ilegalizazioaz barra-barra zebiltzan zurrumurrak, zerbait sendoagoa bihurtu dira asteotan, Espainiako Gobernuaren hainbat ordezkari, lasai asko eta ozen hitz egin baitute laster gauzatuko den asmo garbi bat dela adieraziz.

Espainiako Konstituzioaren 6. artikuluan, partidu politikoei buruz dagoen oinarrikoen aipamenean, "partiduak, aniztasunaren erakusle, herriaren nahiaren adierazle eta politikan parte hartzeko tresnatzat" jotzeaz gain, "partiduak eratu eta bertan aritzea askea da, Konstituzioa eta legeak errespetatzen diren neurrian". Azkenik, barne egitura eta funtzionatze moduak demokratikoak behar direla irakur daiteke arau honetan.

Hori arau orokorra izanik, 54/1978 Legeak (partidu politikoei buruzkoak) zertxobait zehazten du hiritarrok dugun elkartzeko eta elkarteak eratzeko oinarriko eskubidea nola garatu behar den azaltzerakoan.

Eta lege labur (6 artikulua, oso seinale ona lege batentzat) honetan agertzen diren mugak zigor kodearekin eta oinarriko eskubideekin lotuta datoz. Hau da, ez da zilegi delituak burutzeko partidu bat sortzea, ezta demokraziaren aurkakoa ere.

Orain arte, Batasuna eta inguruko partidu eta elkarteak elkarte politikoen erregistroan ageri badira, lege hauek errespetatu eta bete dituztelako da. Ezin da beste modu batera izan.

Horregatik zaila egiten zait asmatzea nondik nora joan daitekeen Madrilgo gobernuak proposatzen duen murrizketa, ilegalizazioa lortzeraino.

Eta, jakina, zalantza sortzen duten galderak pentsaera, helburu... eta holakoetan galtzen dira, hau da, askatasuna, demokrazia eta errespetuarekin zerikusi gutxi duen bide batekin. Beraz, ikusi, irakurri eta aztertu egin behar datorrena.

“Batasuna elkarte politikoen erregistroan ageri bada, legeak bete dituelako da”

Asmo okerra, desegokia eta onartezina



MIREN
ZUBIZARRETA
Irakaslea

Martxan jarri da alderdi politikoa legez kanpo utzi ahal dituen legea adosteko engranajea.

Ideien eta iritzi arriskutsuen salbu utziko gaituen legea ei da, hainbat ildo defenditzeko eskubidea ukatuko duen legea, noski, txarrak diren ildoak defenditzen dituen alderdiak baino ez omen ditu legez kanpo utziko.

Nola uler daiteke hau? Zer esan nahi du honek? Norbaitek erabakiko du zein den txarra eta zein den ona? Zein ideia, iritzi edota ildo zilegi den eta zein ez? Ez du gizarteak lau urtetik behin ebaluaketa hau egiten? Ez du berak erabakitzen zein bai, zein ez eta zenbat bakoitzak?

Badirudi erabaki honekin gobernuan dagoen alderdi politikoa begi bistatik kendu gura duela egiten dion lehia-kidea, edo gizarteari askatasuna eman beharrean aukera egiteko, jadanik akotatuta emango diola zer eta nortzuen artean aukeratu ahal duen.

Baina demokrazia gizarte bateko kide guztien —eta ez batzuen— partaidetzan oinarritutako antolaketa politikorako sistema bat da.

Eta sistema honek hainbat oinarri ditu eta horietako batzuk aukera politikorako askatasuna eta gure gizarteko iritzi, sentiberatasun eta tradizio guztien hautes-adierazpena dira. Hauek bermatu ahal izango dute demokrazia eta baldintza beretan bizi diren gizabanakoek eraiki dezaketzen bizikidetzaren anitza, eta ez alderdi batzuk legez kanpo utziko dituen legeak.

Batasuna da une honetan legez kanpo utzi nahi dutena, Askatasuna eta Segi utzi duten moduan. Alderdi honek, Batasunak, gaur egun herri honetako errealitate sozial eta politiko ageria ordezkatzeko du eta hainbat udal kudeatzeaz gain, ordezkariak lortu izan du bai Eusko Legebiltzarrean baita Gipuzkoako Batzar Orokorretan ere. Beraz, giza talde baten proiektua defenditzeko zilegitasun osoa du.

Pretentsio, asmo hau, nire ustez, bai demokraziaren garapeneren ikuspuntutik, baita bakearen bilaketaren eta normalizazio politikoaren ikuspegitik ere, okerra, desegokia eta onartezina da.

“Batasunak, gaur egun, herri honetako errealitate sozial eta politiko ageria ordezkatzeko du”

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAI

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Sexu berdintasunaren gainean, aurrera egiten segitzen dugu?

Gora eta Behera

EUSKAL ESPARRUAREN ALDE



Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, joan den domekan Bilbon euskal esparrua aldarrikatu zuten guztiak. LAB sindikatuak egindako deiari erantzunez eta oztopo guztiak gaindituz, milaka lagun elkartu ziren euskal esparru ekonomiko eta sozio-laborala aldarrikatzeko. Txalogarria.

MANIFESTAZIOA EGITEKO BAIMENA BERTAN BEHERA LAGA ZUTENAK



Aurrez deituta eta baimenduta zegoen manifestazioa debekatu zutenek ez zuten jokaera garbia eta eredugarria izan. LABekoen eta manifestaziora joan nahi zutenen eskubideak gutxietsi zituzten erabaki politikoa honekin.



JUANITO SAIZAR
Aramaioarra,
autobus gidaria

Koplak

Lagun orlegi berriak

Nahiz eta kalte begian beharrezkoak agian. Berdeak eta txukun-txukunak espaloien erdian.

Bailara osotik gira agertu dira herrira. Huts-hutsik jarri dituzten arren asmo handiz bete dira.

Bai margo eta bai zamaz. Bai egunaz ta bai gabaz. Laster beteko zaizkigu denak zaborrez eta pintadaz.

Trabarik ez pasatzean. Ondo daude bitartean. Momentuz badaukate tokia inork mugitu artean.

Ez da gauza nabarmena gertatuko den txarrena. Leporaino betetzean al da kiratsez beteko dena?

Kalean ontzi ilara. Hain ederra da bailara Gure lagunak izango dira ondo portatzen bagara.

OÑATIKO BERTSO ESKOLA

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzasu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Angel Garai

GIPUZKOAKO BOTIKARIEN ELKARTEKO IDAZKARIA

“Monopolio handi baterantz goaz eta enpresa farmazeutiko handiek hainbat estatuk edo gobernuk baino botere handiagoa dute gaur egun”

Joan den domekan, 100 urte bete ziren Gipuzkoako Botikarien Elkarteak botiken banaketarako enpresa sortu zuela. Elkar-
tea, urte batzuk lehenago, 1898an, sortu zuten Gipuzkoako hainbat botikarik. Gipuzkoako ia botikari guztiak batzen dituen elkarteko idazkaria mondra-
goetarra da: Angel Garai. Biologian eta Farmazian lizentziaduna da eta 23 urte daramatza elkartean lanean.

ENEKO AZKARATE

Ehun urtetik gora daramatza Gipuzkoako Botikarien Kolegioak lanean. Ez da txantxetako.

Arrazoi duzu. 1898. urtean sortu zen, dekretu bati erantzunez. Ordura arte, hainbat lanbide gremiotan batzen zen. XIX. mendearan hasieran, oster, gremioak apurka-apurka desagertuz joan ziren, hainbat lanbidetan jarduteko ikasketak egitea beharrezko bihurtu zen neurrian. Legeak araututako kolegio ofizialak sortzen hasi ziren, eta testuinguru horretan sortu zen Gipuzkoako Botikarien Kolegioa ere. Ramon Usabiaga izan zen elkarteko lehen presidentea, eta hark hartu zuen lehenengo erabakia izan zen sendagaien drogeria-biltokia egitea. Horretarako, enpresa bat sortzea erabaki zuen. Ordura arte, botikariek egiten zituzten botikak euren laborategietan. Baina, dagoeneko, XIX. mende amaieran botikak modu industrialean egiten hasi ziren, hau da, laborategi farmazeutikoak

sortzen hasiak ziren, eta poliki-poliki nagusitzen hasi ziren laborategi handi horietan egindako botikak. Baina botika horiek herrialde osora zelan banatu zen arazoa, zeren botikak era industrialean egiten zituzten enpresen helburu nagusia diru irabaziak sortzea zen, eta ez, horrenbeste, botikak herritar guztien eskura jartzea...

Eta egoera horri erantzuteko sortu zuten botikaren banaketarako enpresa hori, hau da, oraingo astean 100 urte bete dituen enpresa hori, ezta?

Hala da. Botikarien interesak defenditzeko eta, azken baten, herritarrei zerbitzu egokia eskaintzeko sortu zen enpresa. Botikariak eurak izango ziren enpresako akziodunak eta enpresaren buruan botikari bat egongo zen. Sendagarriak herrialdeko bazter guztietara heltzea, hau da, herri txikienetako botikara ailegatzea zen helburu nagusia. Artean, Espainia osoan ez zegoen haren moduko enpresarik. Gero bai, Hego Euskal Herrian zein Espainian zehar beste hainbat sortu ziren, baina lehenengoa Gipuzkoakoa izan zen. 1901eko abenduaren 1ean, 17 botikari elkartu ziren Donostiako Euskal Herria kalean zegoen Arte Ederren aretoan. Batzar hartan erabaki zuten sendagarrien drogeria-enpresa sortzea. 33 akziodunekin, 154 akzioarekin eta 50.000 pezetako kapitalarekin eratu zuten enpresa. Sasoi hartan, hilean pezeta bat ordaintzen zuen elkarteko bazkide bakoitzak. 1901. urtean, 70 kolegiatu ziren dagoeneko.

Eta gaur egun zenbat zarete?

Gutxi gorabehera, 800 bat-edo. Bestalde, Gipuzkoak osoan 280 bat farmazia edo botika daukela uste dut.

Derrigorrezkoa da kolegiatuta egotea lanbide horretan jarduteko?

Bai, baina salbuespen bat ere bada: erakunde publikoetan lan egiten duten botikariak ez daude kolegiatuta egotera behartuta.

Profesionaltasunaren bidean, lehenengo urratsa izan zen orduko botikariek eman zutena.

Bai, bai, hala da, bai. Kezka ugari zituzten orduan eta kezka horiei erantzun guran elkartzea erabaki zuten. Baziren sendagaiak saltzen zituzten drogeriak, edo militarren botikek sekulako konpetentzia egiten zieten, edo sendagaietan prezioak jartzea eskatzen zuten, lan honetan jarduteko kolegiatzea derrigorrezkoa izatea eskatzen zuten, farmazia kopurua zehaztea eskatzen zuten... Hitz baten, geroago eta profesionalagoak izatea eta ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea zen orduko botikari haien asmoa.

Gaur egun, hori guztia ondo araututa dago.

Bai. Esaterako, mugatuta dago farmazien kopurua: biztanle kopuruaren arabera farmazia gehiago edo gutxiago daude, eta farmazia batetik bestera gutxieneko distantzia egon behar da. Esaterako, farmazia batetik bestera 250 metro egon behar dira, eta farmazia batetik osasun etxe batera, 175 metro. Biztanle kopuruari dagokionez, hirietan, 3.200 biztanleko, botika bat; herri handietan, 2.800 biztanleko, botika bat, eta herri txikietan, 2.500 biztanleko, botika bat.

Gipuzkoan zabaldu den azken botika non zabaldu da?

Bada, begira, Debagoiengan zabaldu da azkena, Oñatin, hain justu: Anduaga. Esan behar da farmazia bat zabalitzen denean Osasun Sailak egiten duela deialdia.

Gizarteari zerbitzu egokia emate aldera, farmazien gaueko txandak garrantzitsuak dira. Horren gainean nahiko eztabaida izan zen Debagoiengan orain dela urte batzuk. Zelan dago kontua?

Orain dela 10 bat urte, Arrasaten eta Bergaran, hileko lehenengo hamabost egunetan Bergaran eta beste hamabost egunetan Arrasaten egiten ziren gaueko guardiako txandak. Baina Arrasateko eta Bergarako udalak sistema horren aurka agertu ziren eta urte batzuetatik hona, lehenagoko moduan egiten dira, hau da, Arrasateko farmaziek Arrasaten eta Bergarakoek Bergaran. Egia esan, gaueko zerbitzua ez da askorik erabiltzen, baina egia da, era berean,

AITZINDARIA

“Botikarien interesak defenditzeko eta herritarrei zerbitzu egokia eskaintzeko sortu zen sendagarrien banaketarako enpresa. Artean, Espainia osoan ez zegoen horrelakorik”

BANAKETA ZERBITZUA

“Sendagarriak Gipuzkoako 280 botiketara banatzeko, 30 ibilgailu ditugu eta Gipuzkoako botiketarik egunero hiru bider pasatzeko aukera eskaintzen dugu”

GAUEKO ZERBITZUA

“Askoz hobea izango litzateke farmazia bakarra jartzea ibar osorako, gaueko zerbitzua eskaintzeko. Farmazia gau osoan zabalik egongo litzateke urteko egun guztietan”

INDUSTRIA FARMAZEUTIKO HANDIA

“Industria farmazeutikoak aseguru pribatuak kontrolatzen ditu eta medikuengan ere sekulako eragina dauka Ameriketako Estatu Batuetan”





ANDER GILLENEA

beharrezkoa dela zerbitzu hori eskaintzea, zer edo zer gertatuz gero, behar den moduan erantzuteko. Botikariok gaueko txanden zerbitzuaren eredu aldatzearen aldekoak gara. Orain, gauez farmaziara joan nahi izanez gero, aurretik deitu egin behar da, hainbat kasutan medikuaren errezetarekin joan behar da edo Ertzaintzara deitu behar da. Hortaz, gure ustea da askoz ere hobe izango litzatekeela farmazia bakarra jartzea ibar osorako, gaueko zerbitzua eskaintzeko. Farmazia Arrasateko erdialdean egongo litzateke eta gau osoan zabalik egongo litzateke urteko egun guztietan. Zerbitzu hori eskaintzeko bakarrik egongo litzateke. Zergatik Arrasaten? Ibarreko herri handiena delako, geografikoki erdian dagoelako, Eskualde Ospitalea ere Arrasaten dagoelako... Gure ustez, horrela askoz ere zerbitzu hobe eskainiko litzateke. Herritarrendako erreferentzia izango litzateke eta gau osoan zabalik aurkituko luke herritarrek botika. Gainera, botikariak eurak zerbitzu horretan espezializatuko liriteke, gaueko txandak egiten dituzten medikuak, erizainak, e.a. hobeto ezagutuko lituzkete... Bai, egia da Arrasatekoak ez diren ibarreko beste herritarrek autoa hartu beharko lukete. Baina, bestela, jeneralean, hoberako izango litzatekeela uste dut. Gaur egun, Antzuolan eta Elgetan ez dute gaueko zerbitzurik eskaintzen. Hortaz, haiendako eta Arrasateko gertuago dauden beste herri batzuetako ere hoberako izango litzateke. Egun, gaueko zerbitzua defizitarioa da botikariendako, eta, beste modu horretan, botikari guztien artean ordainduko litzateke zerbitzua.

Botikari guztiak daude kolegiatuta?

Gipuzkoan farmazia duten botikari guztiak gure elkartean daude. Hala ere, badira farmaziarik ez duten edo farmazietan lan egiten ez duten botikariak ere. Horiek beste herrialde batean kolegiatuta egon daitezke.

Botikaren banaketarako biltegia Donostiako Igara auzoan daukazu. 6.500 metro koadroko biltegi ederra, erabat errobotizatua.

Biltegi horri esker eta biltegi horren inguruan sortutako banaketa enpresari esker, Eskoriatzako edo Elgetako farmaziara sendagarriak behar direnean hornitzea lortzen da, sendagarri arraroena izanda ere. Egunero 50.000 sendagarri banatzen dira Gipuzkoako 280 botiketean. Horretarako, 30 ibilgailu ditugu eta Gipuzkoako botiketarik egunero hiru bider pasatzeko aukera eskaintzen dugu, beharrezkoa izanez gero. 90 bat lagun ari dira lanean eta biltegia erroboten bitartez antolatua dago. Biltegian 19.000 sendagarri ezberdin daude.

Horren moduko beste biltegiak badaude beste toki batzuetan?

Gurea neurri ertainekoa da. Baina arazoa da botikaren konpainia handiendako oso tentagarriak direla gure moduko biltegiak eta banaketa enpresak. Gipuzkoako Botikarien Elkartearen enpresa horren helburua, esan bezala, herrialdean sakabanatuta dauden farmaziak hornitzea da; eta, hortaz, ez dauka helburu komertzialik. Baina banaketa enpresa hori botikariena izan beharrean konpainia handien esku egongo balitz, nork ziurtatuko luke Elgetako botikak ganorazko zerbitzua jasoko lukeela? Seguruen, gehien saltzen duten farmaziekin eta biltegitik gertuen daudenekin bakarrik egingo luke lan, enpresa horien azken helburua dirua irabaztea baita. Industria farmazeutiko handiaren helburua banaketa ere kontrolatzea da. Eta hori oso arriskutsua da. Gurea beste eredu bat da.

Industria farmazeutikoa aipatu duzu. Sekulakoa da haren indarra, ezta?

Bai, monopolio handi baterantz goaz eta enpresa farmazeutiko handiek hainbat estatuk edo gobernu bako bako botere handiagoa dute gaur egun. Ameriketako Estatu Batuetan aseguru pribatuak ere kontrolatzen dituzte eta medikuengan ere sekulako eragina dute. Egia esan, oso arriskutsua izango litzateke sendagarrien banaketa enpresa handi horien esku geratzea, interes orokorraren izenean baino areago, interes jakin batzuen izenean lan egingo luketelako.

“Sendagarriak ez dira kontsumorako gaiak”



ANDER GILLENEA

Aipatu duzu farmaziak ezin direla nahi beste eta nonahi zabaldi. Hala ere, arau horren aurkakoak edo merkatua malguagoa egitearen aldekoak ere badira. Zer iritzi duzue botikariok horren gainean?

Hemengo eredu Ameriketako Estatu Batuetakoaren ezberdina da. Hemengo sozialagoa dela esango nuke. Ameriketako Estatu Batuetan merkatuak agin-

tzen du. Europako herrialde gehienek, ostera, botikaren salmenta arautzearen aldekoak dira. Sendagarriak ez dira kontsumo gaiak. Ameriketako Estatu Batuetan, larregiko erabilpena dela eta, osatu beharrean gaixotasun gehiago sortzen dituzte sendagarriak. Jakina, hori ez da ona. Botikak neurrian erabili behar dira, beharrezkoa denean bakarrik. Hemen, European eta Euskal Herrian, beste osa-

sun zerbitzu bat bezala ulertzen ditugu botikak eta, horregatik, besteak beste, herri txikienetan ere badaude. Merkatuak aginduko balu, errentagarria den tokietan edo jende gehiago bizi den tokietan bakarrik zabalduko liriteke botikak eta hainbat herritan, berriz, ez liriteke egon ere egingo, errentagarriak ez liritekeelako izango. Nik ondo deritzot arautegi bat egoteari, zerbitzu egokia eskaintzeko.

Podiuma

Eugenio Goikoetxea | ULMA-CEGASAKO ZUZENDARIA |

Eugenio Goikoetxea hernaniarra (33 urte) bigarren urtez ari da Ulma-Cegasa txirrindulari taldeko zuzendari lanetan. Zigor Iriondo lasartearra izango du laguntzaile. Taldean 23 txirrindulari daude eta irailera bitartean Lehendakari (20 urtetik beherakoendako) eta Euskalduna txapelketetan hartuko dute parte. Oraingo aste bukaeran, Laudion, Atarrabian eta Santanderren izango dira Ulma-Cegasakoak.

Zer-nolako taldea daukazue aurten?

Talde polita osatu dugu. Hamahiru txirrindulari 20 urtetik beherakoak dira, eta gainerako hamarrak 23 urtetik azpikoak eta elite mailakoak, Euskalduna Txapelketan ibiliko direnak, hain zuzen. Nobedadei dagokionez, Juan Pablo Magallanes mexikarra, Koen De Jong holandarra eta Iker Arrate eta Aitor Alonso euskaldunak aipatu behar dira. Era berean, gazte mailatik etorritako Xabier Aristimuño, Jose Manuel Chamorro, Iker Irazu, Ander Odriozola eta Miguel Uriz gurekin arituko dira.

Zeintzuk izango dira talde-buruak?

Denboraldian barrena ikusiko da hori. Agian falta zaigu talde-buru gogor bat izatea. Hala ere, batek baino gehiagok har dezake



ARTXIBOA

Goikoetxea bigarren urtez izango da Ulma-Cegasako zuzendaria.

“Agian talde-buru gogor bat izatea falta zaigu. Hala ere, batek baino gehiagok har dezake erantzukizuna denboraldian”

“Joan den urtean, bosgarrenak izan ginen Euskalduna Txapelketan. Gutxienez iazko emaitza berdintzea da gure helburua”

erantzukizun hori. Iaz, Alberto Sánchez mexikarra ibili zen denboraldi osoan punta-puntan. Aurten, berriz, Iñigo Lazkano, Lander Aperribai, Gorka Bermejo, Magallanes eta De

Jong izango dira erreferentzia nagusiak ziurrenik.

Zer-nolako txirrindulariak dira Magallanes eta De Jong?

Alberto Sánchezek eman zigun Magallanesen

berri. Hemeretzi urte besterik ez du, eta Mexikoko txapelduna izan da 23 urtetik azpiko kategorian. Terreno guztietan ondo ibiltzen den txirrindularia da. De Jong holandarrari buruz ditugun erreferentziak ere oso onak dira. Holandan eta Frantzian lasterketak irabazitakoa da, eta aurten Euskal Herriko talderen batera etortzeko gogoia du. Txirrindulari osoa da, mendian gora ondo dabilena. Biek taldeari gorputz pixka bat emango diote.

Amateur mailako tropelean zein tokitan dago Ulma-Cegasa?

Iaz, oso denboraldi ona egin genuen Euskalduna Txapelketan. Bosgarrenak izan ginen, eta 25 talde ginela kontuan hartuz, oso emaitza ona da. Lehendakari Txapelketan, aldiz, ez ginen horren ondo ibili. Aurten, Lehendakari Txapelketan arituko diren txirrindulariek esperientzia handiagoa daukate eta emaitzak hobetzea espero dugu. Euskalduna Txapelketan iazkoa berdindu, eta, ahal bada, hobetzea izango da gure helburua.

Zuzendari zorrotza zara?

Babesleen aldetik ez daukagu inolako presiorik emaitzak lortzeko, baina logikoa denez, txirrindulariek ahal duten guztia ematea gustatzen zait.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Pablo Gallastegi

Futbolaria



Pablo Gallastegi, Tarragona taldeko kamisetarekin.


Bigarren mailan aritu zen nagusiki.

Gol ugari egin zituen jokatu zuen taldeetan.

Tarragonan eman zituen urte onenak.

Lehen mailan jokatzera iritsi ez zen arren, bigarren mailako hainbat taldetan golak egiteko zuen erraztasuna azaldu zuen Pablo Gallastegik. Bergaran eman zituen lehen urratsak, eta gazte taldearekin Gipuzkoako txapeldunak izan ziren. Gero, Bartzelonak kanporatu zuen Bergara Espainiako Txapelketan. Bergarak, hala ere, 2-1 irabazi zien katalanei Agorrosinen. Bergarako erregional taldean eman zuen lehenbiziko urtean golegile nagusia izan zen. Hirugarren mailara igotzeko gertu egon zen Bergara urte hartan, baina 1-0 galdu zuten Villafrancaren aurka Atotxan. Handik gutxira, bigarren mailako Indautxu taldeak fitxatu zuen: “Hiru urte eman nituen Bilbon. Gero lehen mailan zebilen Malagara joan nintzen, baina soldadutza egin behar nuenez, Melillan utzita jokatu nuen. Zoritxarrez, ez nuen lehen mailan jokatzetik izan fitxa izan arren”. Hala ere, oroitzapen onenetako bat sasoi hartakoa du: “Real Madril etorri zen udako txapelketa bat jokatzera Malagara, eta 1-0 irabazi genion”. Oviedorekin fitxatu eta han ere lehen mailara igoera lortu zuten. Baina Tarragonara joan zen: “Hiru urte oso onak eman nituen han, gol asko egin nituelako eta hirugarren mailatik bigarren mailara igo ginelako”. Jarraian, Osasunarekin 2. mailara igo ziren: “Behin lau gol egin nizekin Eibarri Sadarren”. Jokalari trebea eta azkarra area barruan, buruz bikain errematatzen zuen. Real Unionen ere jokatu zuen 2. mailan, eta Bergaran erretiratu zen. /E. M.

“Lau gol egin nizekin behin Eibarri Sadarren”



Pablo Gallastegi • Bergara • 1946



Herri kirolak ibarreko gaztetxoendako

Ikaspilota programaren barruan, ibarreko ikasleek herri kirol probetan aritzeko aukera izan dute astean. Martitzenean Aretxabaletan eta eguaztenean Bergaran 12-16 urte bitarteko ikasleendako jokoak antolatu zituzten. Soka-tiran, kaskara batzean, errelebo lasterketan edo zakua eramaten ibili ziren ikasleak. Antza herri kirolak harrobi bikaina du Debagoienean.

BABESLEA



VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

Debagoieneko kirola indartu nahirik

Mankomunitateak eta Kirolgi Fundazioak hitzarmena sinatuko dute eguaztenean

Debagoieneko kirolari bultzada bat emateko asmoz, Kirolgi Fundazioak eta Mankomunitateak hitzarmena sinatuko dute eguaztenean, martxoaren 6an, Bergarako udaletxean. Luis Mari Bandres, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria diputatua, eta Victoriano Gallastegi, Mankomunitateko presidentea, izango dira sinatze ekitaldian, 11:00etan.

Kirolgi fundazioa duela lau urte sortu zen eta bultzatzaileen artean Diputazioa, Reala, Ulma, Irizar eta beste hainbat erakunde ditugu. Kirolgiren helburuetako bat babesle pribatuak lortzea da probintziako kirola indartzeko eta, aldi berean, errendimenduko kirolaren hobekuntzarako urratsak emateko.

Hala ere, Kirolgik ez du nahi besteko ezarpena izan gure ibarreen eta datorren astean sinatuko den hitzarmenarekin hori zuzendu nahi da. Horrela, Mankomunitateak kirola babesteko lortutako dirua Debagoienara bideratuko da. Iñaki Ugarteburu Bergarako kirol teknikariak emandako datuen arabera, iaz Kirolgik 250 milioi pezeta jaso zituen enpresengandik eta Debagoienara hiru milioi besterik ez ziren heldu, "oso portzentaje baxua beste bailara batzuetan inbertitutakoarekin konparatuz gero", Ugartebururen hitzetan. Guztira, Gipuzkoa osoko 267 klub, 769 kirol talde eta, denera, 20.000 kirolari inguru izan ziren 2000-



Eguaztenean sinatuko den hitzarmenaren bitartez ibarreko kirol taldeendako dirulaguntzak lortu nahi dira.

2001 denboraldian Kirolgi Fundazioaren laguntza jaso zutenak. Aurrerantzean Debagoieneko enpresa babesleek Kirolgiren barruan direnen ordain fiskal eta publizitario berdina izango dituzte. Era berean, ibar osoko kirolaren aldeko gizarte ekimen horrek, enpresendako irudi aldetik behinik behin, berebiziko garrantzia dauka Kirolgiko arduradunen ustetan.

DEBAGOIENA, INDRARREAN

Enpresa eta kirola uztartu nahi dira eguaztenean sinatuko den hitzarmenarekin. Iñaki Ugartebururen ustetan ekimenak harreara ona jasoko du: "Ea ibarreko enpresak animatzen diren dirua inbertitzera, euren interesgarria izango delako eta, bide batez, bailarako kirolak kalitatezko bultzada bat jaso dezakeelako. Enpresa munduak poten-

tzial handia dauka gure ibarreen eta harrera ona jasotzea espero dugu. Ikusi besterik ez dago Gipuzkoako beste toki batzuetan, eta Donostialdean bereziki, Kirolgik hartu duen indarra".

Kirol elkarteetara, banako kirolarietara eta Debagoieneko kirol ekitaldietara bideratuko da jasotako dirulaguntza.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

PILOTA/BERGARA

Pilota jaialdia izango da zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan, 16:30ean. Lehenbiziko partiduan Azpiroz-Bengoetxea V.a eta Saralegi-Balerdi bikoteak izango dira aurrez aurre. Gero, Beloki II.ak eta Pinedok Arbizuren eta Albizuriren aurka jokatuko dute. Eta, azkenik, Koka-Zearra eta Olaizola II.a-Peñagarikano bikoteen arteko norgehiagoka izango da.

DUATLOIA/OÑATI

Euskadiko duatloi zirkuiturako proba puntuagarria izango da Oñatin martxoaren 23an, 16:00etan. Oñatiko Triatloi Taldeak antolatuta, partaideek zortzi kilometro korrika, 40 bizikletan eta lau kilometro lasterka egin beharko dituzte. Bizikleta proba Deskargako buelta izango da eta Deskargako gainari Antzuolatik aurre egingo diote.

ATLETISMOA/MERINO

Antonio Merino atleta antzularrak Jorge Blancoren oroimenezko krosa irabazi zuen domekan Erandion. Goierri Garaia taldean ari da Merino eta datorren astean Gasteizen jokatuko den Espainiako Kros Txapelketa gertatzen dihardu.

ZIKLISMOA/ALONSO

Ulma-Cegasa taldeko Aitor Alonso txirrindulari donostiarra *Un invierno en Mallorca* itzuliko bigarren etapa irabazi zuen domekan, El Arenal-Lluc Mayorren. Alonso pistako espezialista da, eta pista eta errepideko probak tartekatuko ditu.

Zeelanda Berriko mendietatik bueltan

Alberto Iñurrategi, Jon Lazkano eta Asier Aranguren Cook eta Aspiring mendietan izan dira

Cook mendiko gailurra zapaltzerik izan ez duten garren, pozik bueltatu dira Zeelanda Berriko EITBko espediziokideak. Orain, grabatutako materialarekin beste dokumental bat prestatzen hasiko dira.

Alberto Iñurrategi, Jon Lazkano eta Jon Beloki mendizaleekin batera, Asier Aranguren kazetaria eta Gotzon Arribas kameralaria izan dira Zeelanda Berrian. Zeelanda Berriko gailur ezagunena Cook mendikoa da, baina Iñurrategi eta Beloki zarautzarak ez zuten berau zapaltzerik izan eguraldiaren erruz. Cook mendia 3.753 metro garai da eta hegoaldekin ekin zioten igoerari bi mendizaleek. Hala ere, elurraren egoera arriskutsua zela eta, gailurretik oso gertu zirela,

aurrera ez jarraitzea erabaki zuten. Zortzi ordu inguru eman zituzten eskalatzen eta zailena eginda zutela uste zutenean, atzera egin behar izan zuten.

Jon Lazkano bergararra, berriz, Gotzon Arribas kamerariaren laguntzaila lanetan izan zen eta ez zuen gailurrera jotzerik izan. Cook mendiko gailurrera igotzeko ahaleginetan beste bi kordada ziren, baina biek ere amore eman behar izan zuten. "Baldintzak ez ziren egokienak eta gailurrera heltzeko aukerarik ez genuela konturatu ginen berehala. Hegoaldeko arista egin genuen, Cook mendiko klasikotako bat, eta benetan arista ikeragarria da, luzea eta sekulako bistak dituena. Irudi ikusgarriak jaso genituen", azaldu du Albertok. Aristan bibaka egin ondoren, jaisten hasi ziren. Hamabi ordu


behar izan zituzten aterpetxera heltzeko, eta uste baino arriskutsuagoa gertatu zen jaitsiera.

ASPIRING MENDIA, OHIKO BIDETIK

Cook menditik Aspiring mendira (3.027 metro) abiatu ziren. Zeelanda Berrian neguan dira orain. Albertoren ustetan, ederragoa izango da Aspiring mendia hango neguan. Gaueko hamabietan irten ziren gailurrera bidean eta, arazorik gabe, ohiko bidetik egin zuten igoera eta jaitsiera.

Esan bezala, jasotako materialarekin telebistarako dokumental bat egingo dute. Bestalde, Iñurrategi eta Lazkano Annapurnara igotzeko saiakera egingo dute apirilean. Alberto Iñurrategiri geratzen zaio zortzimilako bakarra.


E.M.



Jon Lazkano, Asier Aranguren eta Alberto Iñurrategi.

ARTXIBOA

Teknologia berriak,



Pertsonen zerbitzura.



internet guztiontzat



enpresa digitala



administrazioa on-line



euskadi sarean



e-prestakuntza



e-osasuna



azpiegiturak

Euskadi Informazio Gizartean Planoa. Haurre da Planoa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

▲ Euskadi etorkizunari aurre egiteko prest egon dadin. Hasi zu zeu. Internet eta teknologia berriak zure esanetara egon daitezten. Etorkizunari lasai begiratzeke. Eta etorkizunak bere aurpegi argia zuri erakusteko. Horregatik bideratzen dugu geure ahalegin guztia Euskadi Informazio Gizartean Planoa garatzera. Bat egin gurekin ●

;-) euskadi
informazio gizartean en la sociedad de la información
Zorionak! Planeko Fortaide zara eta.

Goienka 2a

Egubakoitza / 2002ko martxoaren 1a

Kultura
eta
aisialdia



Martxoaren
1etik 8ra

Orekaren bidean

Orain dela hogei urtetik gora iritsi zen yoga gure ibarrera. Hasieran, errezelo asko piztu zuen jendearengan, baina gaur egun, yogak osasuna esan nahi du gehienondako: fisikoa, burukoa eta norbera hobeto ezagutzeak dakarren osasuna



Estresak 100 milioi dolarreko baino gehiagoko gastuak eragiten ditu urtero Ameriketako Estatu Batuetan. Geurean ere, oso hedatuta dagoen gaixotasuna da hori. Sarritan geure bizimoduak eragindako beste gaixotasun askori aurre egin beharra izaten dugu: lanean txarto esertzen garelako, bizkarreko minak izaten ditugu; urduri eta

kezkatu ibiltzen gara, eta lo egiteko arazoak izaten ditugu; presaka eta korrika gabiltza, eta ez diogu geure buruari atsedenerako unerik ematen. Yogak horiek guztiak arintzeko bidea proposatzen digu, eta bide horri gustura ekin diote Debagoieneko hainbatek eta hainbatek. Adin eta lanbide guztietako jendea dabil gure herrietako yoga eskole-

tan. Eta, yogarekin batera, gero eta jardura gehiago proposatzen dituzte eskola horiek: masajeak, autoestimua eta norbere ezagutzaren eta garapenaren ikastaroak, hitzaldiak, ukimen tailerrak... hitz batean esateko, ahaztuta ditugun gaitasunak lantzeko tresnak, bizitza arinagoa eta gus-tagarriagoa egiteko teknikak. /LEIRE KORTABARRIA

OSASUNA/ GERO ETA JENDE GEHIAGOK HARTZEN DU PARTE YOGA IKASTAROETAN

Yoga, modan dagoen osasunbidea

INDIATIK ETA TXINATIK, DEBAGOIENERA: YOGA ESKOLEK HOGEI URTETIK GORA DARAMATE DEBAGOIENEAN LANEAN

Yogak egin du bere ibilbide-txoa Debagoienera ere: hogei urtetik gora dabilta hemen yoga irakasleak, eta hasierako errezeloak gaintu ondoren, gero eta jende gehiago erakartzen du Ekialdetik etorritako diziplina horrek: ariketa, adimenaren lanke-ta eta espiritualtasuna, bat eginda.

Yoga hitzak "batasuna" esan gura du, eta horixe da bere helburua: gizakia bat egitea. Euskal hitz batek oso ondo adierazten du yogak gure alde egin dezakeena: osatu. Alde batetik, hitz horrek "sendatu" esan gura du; bestetik, "batu", falta dena gehitu. Arnasketa -pranayama- eta jarrera -asana- ariketen bidez, gorputza, adimena edo burua, sentimenduak eta emozioak, eta espiritualtasuna edo barne mundua lantzen eta indartzen dira.

EHUNKA IKASLE IBAR OSOAN

Lo egiteko arazoak, estresa, antsietatea, arnasketa arazoak, bizkarreko mina... Hainbat eta hainbat arazo zirela-eta, batzuen kasuan, edo jakin-minarengatik eta gauza desberdinak egiteagatik, beste batzuenan, hurbildu izan dira debagoiendarrak yoga eskoletara. Irakasle guztiek dioten moduan, hasieran, jendeak gauza arraro moduan ikusten zuen yoga, eta sekta bat ez ote zen izango beldur ziren. Sasoi hartan, adibidez, "lau edo bost" ikasle elkartzan ziren Oñatiko eskoletan. Azken bi urteotan, ordea, izugarritzako goraldia izan du yogak. Ehunka ikasle daude orain ibar osoan, eta herri gehienetan ematen dituzte eskolak.

OSASUN FISIKO ETA ESPIRITUALA

"Oso garrantzitsua da yogaren filosofia ere ikastea. Bestela, ariketa arraro samar batzuk besterik ez dira", dio Lidia Garciak, Eskoriatzako yoga irakasleetako batek. Berak bi alderdiak, fisikoa eta kontzeptuala, landu, eta yogak edozein osasun arazo konpon dezakeela frogatu zuen: auto istripu larria izan zuen 1992an, eta %53ko urritasun fisikoa geratu zitzaion. "Torloju piloa ipini zidaten, ebakuntzak egin zizkidaten, urtebete ibili gabe pasatu nuen... eta sinistu ezinezkoa da zelako sendaketa izan dudana, yogari esker", diosku.

Baina osasun espirituala ere bultzatzen du yogak: "Gizakiaren oreka, orain eta hemen: hori da gure leloa eta hori bultzatzen dugu, eta gerokoak, gero", dio Jose Luis Armendiak.

LEIRE KORTABARRIA



LEIRE KORTABARRIA

Muskuluak malgutzeko eta tonu hobea lortzeko balio du yogak, besteak beste.

JOSE LUIS ARMENDIA / YOGA IRAKASLEA

"23 urte pasa ditut botikarik hartu gabe"

Jose Luis Armendia arrasatearrak lehenengo eskola egunean erabaki zuen yoga beretako zela. Irakasle egin zen, eta ibarreko hainbat herritan ematen ditu eskolak.

Zer dela-eta hasi zinen yogan?

Alde batetik, ariketa fisikoa gustatzen zait. Bestetik, asma eta hezur arazoak nituen. Pentsakera aldetik ere, batasunaren bila ibili naiz beti: erlijioan, gizartean, gorputzean... eta yoga hitzak

batasuna esan gura du.

Jendeak erraz onartzen du yogak?

Batzuek oraindik erreparoa dituzte, baina gero eta hobeto onartzen dute. Hasieran, jende askok judoarekin nahasten zuen! Orain, osasunarekin lotzen dute. Nik neuk 23 urte pasa ditut asma-rendako botikarik hartu gabe.

Intrusismo handia dago?

Yogan, ez hainbeste, sakrifkatua delako: bat irakasteko, lau jakin behar da. Masajeetan intrusismo gehiago ikusten dut, bai.



Yoga ikasleek euren esperientziaren gainean diotena



BEGOÑA IRASTORZA

Orain dela 21 urte hasi nintzen, Bergarako lehenengo taldean. Oso urduria naiz, eta yogak on egingo zidala esan zidaten. Hala izan da, bai. Yogak lasaitzen laguntzen dit, eta neure buruarrekin topo egiten.



MARIA PILAR LARRAÑAGA

Aurten hasi naiz, irailean. Yoga orokorrean osasunarendako ona dela entzun nuen, eta ariketa fisikoa egin eta erlaxatzeko asmoz hasi nintzen. Oso pozik nabil. Lehengo oso zailak diruditen posturak, gero errazak egiten dira.



BLANCA CALVO

Orain dela hamabi urte hasi nintzen yoga egiten, Bergaran. Giza laguntzaileak esan zidan ekintza berri bat zela, eta animatzeko... Oso-oso pozik nabil orduanik. Arnasa egoki hartzen eta lasaitzen laguntzen dit yogak.



MARI CRUZ ARREGI

Yoga egiteko aukera zegoela jakin nuen, eta jakinmina nuelako eta aisialdia betetzeko parte hartzea erabaki nuen. Oso pozik nabil, bestela ez nukeen hainbeste denboran jarraituko! Arnasketa ariketak ditut gustuko.



MARI OLIVARES

Bizkarreko minaz nenbilerako hasi nintzen. Bestalde, eguneroko bizitzako arazoetatik ihesbide ona da yoga: fisikoki eta psikologikoki sendatzen zaitu. Bestalde, ez da kirol kompetitiboa, eta hori oso gustuko dut.

Zertarako da ona?

1 Muskuluak malgutzeko eta tonu hobea lortzeko. Kirolariendako osagarria izan daiteke: kirolarekin indarra lortzen dute, eta yogarekin, malgutasuna.

2 Modu egokian arnasa hartzen irakasten duenez, asma eta antzeko gaitzak arintzeko balio dezake. Gainera, arnasketa on bat da erlaxatzeko oinarria: hortaz, lasaitzen eta estresa kentzen lagun diezaguke.

3 Hainbat hezur bihurtura edo gaixotasun hobetzeko balio du. Adibidez, bizkarrezur okerra edo artritisa.

4 Yoga norberak bere buruari egindako masajea da, barne organoen masajea. Hainbat osasun arazorendako lagungarria da: adibidez, heste gaixotasunendako.

5 Euren barne mundua eta izaera hobeto ezagutu gura dutenendako, meditazio eta norbere buruaren analisi teknirik jorratzen ditu.

6 Kontzentratzen irakasten eta laguntzen du. Eguneroko bizitzarako eta ikasketa edo lanerako ona izan daiteke.

ARGITALPENAK/ LUMA, DENBORAPASAK EUSKARAZ

Hitz-jokoak, euskaraz

HITZEKIN JOLAS EGITEA GUSTUKO DUTENENDAKO, MOTA HORRETAKO EUSKARAZKO ALDIZKARIA JAIO DA

GOIENKARIAko irakurleei ezagun egingo zaie Luma izena, denbora-pasazaleak direnei, behintzat. Izan ere, eurek prestatzen dute gure asteroko hitz gurutzatuen jolasa. Orain, Luma enpresak erronka bati heldu dio: euskarazko denbora-pasa aldizkaria kaleratzen hasi da.

Euskaraz egiten den lehenengo denbora-pasen eta hitz-jolasen aldizkaria jaio da. Hilabetekaria izango da, eta Irungo Luma enpresak egingo du. Debagoieneko paper dendetan, liburu dendetan eta kioskoetan aurkitu ahal izango dugu aldizkari hori. Lumakoak GOIENKARIAko kolaboratzaileak dira, beste hainbat komunikabiderenak bezala, eta enpresaren izen berberarekin bataiatu dute euren produktu berria. Iñaki Agirresarobe, Prexen Gastearena eta Joxan Elosegiri dira proiektu horren atzean dauden hiru buruak.

LIBURUDENDATAN HILERO

Hilabetekaria eta 68 orrialdekoa izango da Luma aldizkaria. 6.000 ale aterako dituzte hilero, Euskal Herri osoan banatzeko, gure ibarra barne, jakina. Hiru eurotan salduko da, baina harpidedun ere egin ahal izango gara, urtean 30 euro ordainduta. Horrez gain, urtero, ehun orrialdeko bi ale berezi aterako dituzte.

Euskarazko denbora-pasa aldizkari bakarra dugu Luma; asmo handiko proiektua da: "Aspaldikoa da aldizkaria egiteko ideia", esaten dute Iñakik, Pre-



Hitz jokoak

Hitz gurutzatuak

Hitz gezidunak

...eta sari ederrak!



Hona hemen Luma aldizkariaren lehenengo zenbakiaren azala.

xenek eta Joxanek. "Saio bat egin zuten Joxanek eta Luis Manterolak 1987an, Elkar argitaletxeak lagunduta, *Enbido* aldizkariaren

bitartez, hain justu ere. Baina bosgarren zenbakia izan zen, zoritxarrez, *Enbido*-ren azkena", aitortzen digute. Hala ere, horrek eskar-

mentu gisa balio izan die. Hizkuntzak ematen dituen aukerak esploratu ahal izan zituzten: "Berehala ohartu ginen euskara oso hizkuntza egokia dela gure inguruko erdal aldizkarietan ikusten ditugun hitz-jokoetarako ere", azpimarratzen dute.

HITZ-JOKOEN ARTISAUAK

Hitz gezidunak prestatzeko ordenagailuak erabiltzen dituztela uste bazenuten, oker zabilzate. Lumakoak artisauek dira: "Buru erabiltzen dugu. Hitz da beti abiapuntua. Hitz bat idatzi eta hartatik hasten gara sarea hedatzen", azaltzen dute.


Gustura egiten dute lan hori, baina bere arriskuak dituela ere badakite: "Batzuetan aspergarri gertatuko zaizkio hainbati proposatzen ditugun jokoak. Arriskua hor dago, eta saiatu beharra daukagu arrunkeari aldentzen. Baina kontuan hartu beharra dago nahita errepikatzen ditugula zenbaitetan hitzak, moduak eta definizioak, jendearen harrera eta sarrera errazteko", esaten dute hiru lagunek.

IKASTEA ETA ONDO PASATZEA

Hizkuntzak bi zeregin betetzen ditu Lumaren jokoetan: batetik, irakastea; bestetik, entretenimendurako tresna izatea, horixe baita Lumaren helburu nagusia: "Jendeak ondo pasatzea beste helbururik ez dugu guk, eta horretan adin eta molde guztietako eus-kaldunak dauzkagu gogoan".

LEIRE KORTABARRIA

NIREAUKERA



¡EH PETREL! Julio Villar

Orain dela hiru urte irakurri nuen Julio Villar donostiarraren *¡Eh Petrel!* liburua.

Villarrek belaontzi txiki bat erosi zuen, eta munduari bira ematera joan zen. Espainiatik abiatu zen eta lehenengo Ozeano Atlantikoa, gero Ozeano Barea, Indiako Ozeanoa... zeharkatu zituen, eta munduko hamaika herrialde bisitatu zituen. Bidaia-egunkari antzekoa da liburua. Kontakizunez gain, hark egindako marrazkiak ere eskaintzen ditu. Itsasoa nire pasioetako bat da, eta, liburuaren eraginez, anaiak eta biok itsasontzitzo bat erosi dugu, eta nabigatzen ikasten gabiltza /L.K.




Dani Laskurain

Margolari bergararra. 35 urte. Giza-irudi bilduma bat prestatzen dihardu.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Ipuinak



ALDARTE ONEKO IPUINAK

Gotzon Garate
Gero
95 orrialde

Euskaldunon artean herri ipuin batzuen hainbat aldaera aurki daiteke, tokian tokiko ñabardurez bereiztuta. Gurean, bestalde, idatziz jasotzeko ohitura eroso berantiarra izan dugunez, desberdintasun horiek areagotu baino ez dira egiten.

Gotzon Garatek han eta hemen entzun eta bildutako ipuinei, Gotzon Garatek berak asmatutakoak gehitzen zaizkie, eta, izenburuak berak argi uzten duen legez, aldarthe onean gozatzeko sorta ederra osatzen dute ipuinok. Liburua euskaltegiko 8. urratsetik gorako ikasleendako zein B eredu-koendako da egokia.

LIBURUA / Aldizkaria



PUTZ

Apokaliften kultura elkarte
52 orrialde
3 euro

Zakiltxo dakar azalean. *Kamiltxo* ezagunaren laguna izango da seguruenik. Jolastu gura duzu *Zakiltxo*-rekin?

Azalaren barnean badago mamia: *Barbie* panpinen gaineko idatzia, Padi Rekalderen liburuaren aurrerapena. Elkarrizketa, aldiz, Oskar Beorlegiri egin diote, *El piloto suizida* liburua dela-eta. Beorlegi ostantzean ere ezaguna da musika aldizkarietan jardutearren. *Putz*-ekoek ohituta gauzkatzen aldizkariak baino lasaiagoa da. Sexu eta porno gutxiago dagoelako izan daiteke, batzuen gusturako eta beste batzuen zoritxarrerako.

DISKOA / Trikitixa



NEGARREZ ABESTEN DUT

Juanito Maltzeta
Elkarlanean
14 kantu

Garaiak aldatuz doaz, baina esentziak iraun egiten du denboraren ginetik. Eskusoinuaren hasierako eragileek, trikitixaren ereduak (Gelaxo, Elgeta...) oraindik bizirik diraute trikitilari zahar zein gazteengan. Horiatariko batzuek antzinako erromeriak, festa simple, paregabe eta fresko horiek ezagutzeko aukera eta zortea izan dute, eta, estilo zein funtsa bertsuari jarraituz, ahalegindu dira euren bizitzan momentuok gogora ekartzen, berpizten eta gozaratzen. Juan Garate *Maltzeta* da, hain justu, horietako bat. Alaba Mamenen laguntza izan du.

Martxoa: 1-8

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

BERGARA

► **Ondo esan beharko** antzerki lana jokatu du Ramon Agirre aktoreak etzi, domeka, Pol-Pol tabernan. 19:00.

OÑATI

► **Dulce Puta** antzerki lana eskainiko du Itziar Lazkanok gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Gorputzaren eta adimenaren integrazioarako tailerra** antolatatu du Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak martxoaren 23rako, zapatua. Izena emateko, deitu 616965795 telefonora martxoaren 15a baino lehenago.
► **Yoga ikastaroa** abiaraziko du Zainduz osasun eta fitness zentroak. Martxotik aurrera izango da, martitzen eta egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era. Argibideetarako, deitu 943 71 27 92 telefonora.

ARRASATE

► **Batukada eta erritmo afro-brasildarren perkusio ikastaroa** antolatatu du Iñaki Bruñak. Izena emateko epea zabalik dago. Interesatuok jo gazte informazio bulegora.

BERGARA

► **Aurpegiaren yoga ikastaroa** antolatatu du Samadhi zentroak martxoaren 22rako eta 23rako. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, jo euren egoitzara (Kruz Gallastegi 2, behe) edo deitu 636 23 57 53 edo 943 76 11 38 telefono zenbakietara.

EUSKAL HERRIA

► **Nekazaritza arloko etengabeko formazioarako ikastaroak** antolatatu ditu Mendikoik, Eusko Jauriaritzako Heziketa, Sustapen eta Landa Garapenerako sailak. Argibide gehiagorako edo izena emateko, deitu 945410303 telefonora edo kontsultatu www.mendikoik.net interneteko orria.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Yana Curi, paradisu zauritua: petrolioa, heriotza eta txikizioa Ekuadorreko Amazonan** izeneko argazki erakusketa ikusteko aukera dago Olaranen, martxoaren 3ra arte.

ARRASATE

► **Animalien aztarnak** izeneko erakusketa antolatatu dute Udaleko Ingurumen Sailak eta Iñigo Olaziregi biologoak. Martxoaren 4tik 16ra izango

duzue ikusteko aukera, Monterronen, honako ordu eta egunetan: astelehene-tik zapatua, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

► **Palestinaren inguruko erakusketa** dago zabalik Errotalde jauregian domekara arte, martxoak 3.

OÑATI

► **Basoen baso** erakusketa antolatatu du natura eskolak. Olakuako egoitzan izango da, apirilaren 28ra arte.

► 500 urtez frantziskotarrak

Arantzazun izeneko erakusketa zabalik dago, irailaren 9ra arte, Arantzazuko santutegian. Bisita orduak 11:00etatik 18:00etara dira. Astelehene-tan itxita dago. Argibide gehiagorako, honako internet gunea bisita dezakezue: www.arantzazu.org.

MUSIKA

ARRASATE

► **Legazpiko Musika Eskolak** kontzertua eskainiko du gaur, Amaia

antzokian, 18:30ean, Arrasate Musikalen eskutik.

► **Aretxabaletako akordeoi orkestrak** emanaldia egingo du domekan, hilaren 3an, Amaia Udal Antzokian, 12:30ean. Arrasate Musikaleko bazkideendako, sarrerak 3 euroan salduko dira; gainerakoek, 5 euroan erosi ahal izango dituzte.

BERGARA

► **Grave Digger eta Brainstorm** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Aldez aurretiko salmentan, 17 euro balioko dute sarrerak; txarteldegian, 19.

ELGETA

► **Sagarroi eta Eten** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Gaztetxean, 23:00etan, Gaztetxearen 6. urteurrenaren ekitaldien barruan.

ELORRIO

► **Mariam Hassan & Leyoad** emakume sahararrek musika emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Arriola aretoan, 22:30ean. *Andrak musikari, munduak bira* programaren barruan dago ekitaldi hori.

► **Txinako orkestrako emakumezko bakarlarrien taldeak** emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, martxoaren 8an, Arriola aretoan, 22:30ean, *Andrak musikari, munduak bira* programaren barruan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Argazki-matematika lehiaketa** antolatatu du Arrasateko Institutuak, bere 25. urteurrena dela-eta. Oinarriak Institutuan edo Monterronen jaso ahal izango dituzue. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 4an jakinaraziko dute.

BERGARA

► **Txorimalo lehiaketa antolatatu du Jardunek.** Adin guztietako jendeak har dezake parte. Lehiaketa martxoaren 23an izango da, eta aurkeztutako txorimaloak ferian egongo dira ikusgai. Izena emateko muga eguna martxoaren 15a izango da. Interesatuok, jo Jardunen egoitzara edo deitu 943 76 36 61era edo 943 76 08 19ra.

► **Mendekoste jaietarako kartel lehiaketa** deitu du Udaleko jai batzordeak. 60x42 zentimetroko kartelak onartuko dituzte, eta derrigorrezko testua honakoa izango da: *Pentekoste Jaiak Bergaran. 2002.* Kolorea eta teknika libreak izango dira, eta aurkezteko modua, ezizen bidez. Kultura Etxean aurkez ditzakezue lanak, martxoaren 20ra arte.

EIBAR

► **Gazteen XVII. Eibarko Hiria Ipuin Lehiaketa** antolatatu du Eibarko Udalak. 14 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Argibideak: 943 70 71 53 edo 943206845.

GIPUZKOA

► **Zabalik dago Euskal kantu txapelketan** parte hartzeko epea. Horretarako, 15 urtetik gorakoa izan beharra dago; parte hartzaileek ezingo dute euren izenarekin zinta, disko edo konpaktorik grabatuta izan; taldeak, gehienez ere, 10 kidekoak izan daitezke, eta estilo guztiak onartzen dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 49 38 42 edo 656 70 84 46 telefonotara, martxoaren 14a baino lehen.
► **Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen 2002ko saria** antolatatu dute, bi helbururekin: musikari buruzko ikerketa piztea eta sustatzea; eta musikaren sorkuntzaren alorrean nabarmendu diren egile handien ibilbidea eta lana modu publikoan goraiatzea. Argibideetarako edo izena emateko: 943122239 edo 943018508.

DEIAK

ARAMAIO

► **Emakumearen nazioarteko eguna dela-eta**, ekitaldiak izango dira egunero Kultura Etxean, 18:30etik aurrera, martxoaren 4tik aurrera.

ARRASATE

► **Piztien egoera Euskal Herrian** izeneko hitzaldia egingo du Migel Mari Elozegi biologoak astelehenean, martxoaren 4an, Monterronen, 19:00.
► **Etorkizuna, Prestakuntzaren 'p'ekin hasten da** izeneko mahai-ingurua izango da martitzenean, martxoaren 5ean, Goi Eskola Politekniko areto nagusian, 19:30ean.

BERGARA

► **Iñigo Martinez "Memín" gogoratzeke, Irukurutzetara mendi martxa** antolatatu dute haren lagunek biharko, zapatarako. San Martin plazatik irtengo dira, 9:30ean.
► **Berto afaria izango da bihar**, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariekin. Artatse elkartean izango da, 21:00etan. Txartelak Arranon, Pol-Polen eta Korta Zaharren daude salgai, 10 euroan langabeendako eta 18an gainerakoendako.



► ANTZERKIA

URAK DAKARRENA, GLU-GLU GLU-GLU... LANA ARETXABALETAN

"Norbaitek esan zidan bizitza kafe on bat bezalako del: zenbat eta beltzagoa, orduan eta sakonagoa; zenbat eta garrazagoa, orduan eta gustagarriagoa; eta zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta gehiago hoztuko da. A, eta ez zaiola letxetxarra bota behar". Hitz horiekin aurkezten digu Esther Uria aktoreak martxoaren 7an egingo duen bakarriketa: *Urak dakarrena, glu-glu glu-glu...* Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatatu dute antzerki saio hori, egubakoitzean Emakumearen Nazioarteko Eguna delako. Antzerkiaren ondoren, mokadua izango da.

Non: Aretxabaletako udaletxe zaharrean. **Noiz:** Martxoaren 7an, eguna. **Ordua:** 19:00etan.



SOR JUANA INES DE LA CRUZ

Aita bergararra zuen Sor Juana Ines de la Cruz idazle mexikarra jaio zela 350 urte dira aurten. Hori dela eta, omenaldia egingo diote gaur, martxoaren 1ean, Bergarako udaletxean, 19:00etan. Bere bizitzaren eta lanaren gaineko hainbat hitzaldi egingo dituzte.

Sarrera doan
LEHIAKETA

OSKORRI

Bergarako Pilotalekuan

Zein da Oskorriko abeslariaren izena?

Deitu, eta erantzun zuzenen artean, **Bergarako Pilotalekuan martxoaren 9an** (zapatua) egingo duten kontzertura joateko **6 SARRERA** zozkatuko ditugu.

Deitu martxoaren 5eko (martitzena) 18:00ak baino lehenago.

 **943 76 92 71**

- **Lehen hezkuntzako umeen dinamizatzaile lanpostua** beteko duen lagun bat behar du Jardun elkarteak, egun erdiz. Euskara maila ona eta haurrekin esperientzia izatea kontuan hartuko dituzte. Izena emateko eta kurrikulumak aurkezteko azken eguna martxoaren 5a izango da. Argibideak: 943 76 36 61.
- **Oñatiko Araotzera behaketa irteera** antolatatu du Pol-Pol mendi taldeak biharko, zapatua. Ez dago izena eman beharrik; nahikoa duzue egunean bertan Pol-Polen egoitzaren aurrean agertzearekin, 10:00etan. Argibideetarako, deitu 943 76 48 51 telefonora.
- **Emakume talde batek afaria antolatatu du** martxoaren 8rako. Parte Pol-Pol edo Arrano tabernetan eros ditzakezue txartelak.

ESKORIATZA

- **Emakumearen eguna dela-eta, kale animazioa eta mokadua** izango dira gaur, egubakoitza, plazan, 18:00etan. Eguraldi txarra badago, pilotalekuan izango dira ekintza horiek guztiak.

OÑATI

- **Baloreen garrantzia gure seme-alaben hezkuntzan** izeneko hitzaldia egingo du Jesus Mari Mujika adituak eguaztenean, martxoaren 6an, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

BIDEOA

BERGARA

- **Ciudadano Kane** filmaren emanaldia izango da Gaztetxean, datorren eguaztenean, hilaren 6an, 22:00etan, eta datorren domekan, hilaren 10ean, 18:00etan.

Zinema

ARRASATE

ALAI ZINEMA

Ocean's Eleven

Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

AMAIA ANTZOKIA

Código desconocido

Eguena, zinekluba: 21:30.

BERGARA

NOVEDADES

Hora punta 2

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

A mi madre le gustan las mujeres

Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

La zona gris

Eguena, zinekluba: 20:00.

OÑATI

SANTA ANA

Amor ciego

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 22:30.

Kiriku eta sorgina

Zapatua eta domeka: 17:00.

Sólo mía

Eguena, zinekluba: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Corazones en Atlántida

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 22:15.

Martitzena: 19:00, 22:15.
Eguaztina, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

Black Hawk derribado

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

Desde el infierno

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Ocean's eleven

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Última sospecha

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Vanilla sky

Egubakoitzetik domekara: 17:00.

Una mente maravillosa

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

En tu cama o en la nuestra

Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 20:30, 22:30.

Daño colateral

Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 19:45, 22:30.

Black Hawk derribado

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:30.

El señor de los anillos

Egubakoitzetik domekara: 17:00.

MIKELDI ZINEMAK

Ocean's eleven

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Monstruos S.A.

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Atando cabos

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

El señor de los anillos

Zapatua: 16:30, 19:45, 23:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

Estafadores

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Vidocq

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Daño colateral

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Una mente maravillosa

Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Moulin Rouge

Egunero: 22:30.

Amelie

Egunero: 17:15, 20:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

FLORIDA-GURIDI

Yo soy Sam

Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

El hijo de la novia

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

La ciudad sin limites

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Lantana

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

En tierra de nadie

Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 01:00.
Domeka: 19:45.

Piedras

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Fucking Anal

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

Moulin rouge

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

STER ZINEMAK

Ocean's eleven

Egubakoitza eta zapatua: 18:05, 20:30, 22:55, 01:20.
Domeka: 18:05, 20:30, 22:55.

Yo soy Sam

Egubakoitza: 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Zapatua: 12:00, 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:10, 22:50.

Desde el infierno

Egubakoitza: 18:00, 20:30, 23:00, 01:30.
Zapatua: 12:25, 15:30, 18:00, 20:30, 23:00, 01:30.
